115 IRAILA 2013 SEPTIEMBRE

Atarrabiarako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava

www.villava.es

# Villava Atarrabia

Osoko Bilkurak [2]
Hobekuntzak Atargi eta Amalur ikastetxeetan [4]
Aitor Garralda, udal kontu hartzaile berria [4]
Irailaren 27an, egungo hirigintza-ereduari buruzko diagnosia aurkeztuko da [4]
HHBaren Zerbitzu Elektronikoen Gutuna [4]
Berdintekarako izen-ematea [5]
Jantoki-bekak [5]
Toki berriak ziklomotoreak eta motoak aparkatzeko [6]
Bono-gorria, zer kirol eta noiz egin aukeratzeko [6]
Nafarroako historia ikastaroa, urritik apirilera [10]
Zazpi gazte, "More than sport" egitasmoan [13]
Herritartasun Eskola, abian [14]
Irati Elkartea desegin da [15]
Agenda [16]

Plenos [2]
Mejoras en los centros Atargi y Amalur [4]
Aitor Garralda, nuevo interventor municipal [4]
El 27 de septiembre se presenta el diagnóstico sobre el modelo urbanístico actual [4]
Carta de Servicios Electrónicos de la OAC [4]
Inscripciones para la Berdinteka [5]
Becas-comedor [5]
Nuevas plazas para aparcar ciclomotores y motos [6]
Bono-gorria, para elegir qué deporte y cuándo [6]
Curso de historia de Navarra, de octubre a abril [10]
Siete jóvenes, en el proyecto "More than sport" [13]
Se pone en marcha una Escuela de Ciudadanía [14]
Se disuelve la Asociación Irati [15]
Agenda [16]






## Igerileku aldiaren bukaera; kirol denboraldia, abian (6, 7)

## Fin a la temporada de piscina y en marcha el curso deportivo (6, 7)




## II Berdintasun Plana (5)

## II Plan de Igualdad (5)




## Helduak euskara ikastera animatzeko kanpaina (8)

## Campaña para animar a los adultos/as a aprender euskera (8)

**Argitaratzailea:** Atarrabiako Udala. **Erredakzio Kontseilua:** Pedro Gastearena, Guillermo Ezkieta, Richard García, Mercedes Sánchez, Ángel Larraya, Charo Fraguas, Pello Gurbindo, eta José Vicente Urabayen (koordinatzailea). **Argazkia:** Oskar Montero. **Itzulpena:** Kike Diez de Ulzurrun. **Errealizatzailea:** Heda Comunicacion. **Inprimatzailea:** Graficas Ona. **Ale kopurua:** 4.400. **LG:** NA 1223-1996. **Doako banaketa** // **Edita:** Ayuntamiento de Villava. **Consejo de Redacción:** Pedro Gastearena, Guillermo Ezkieta, Richard García, Mercedes Sánchez, Ángel Larraya, Charo Fraguas, Pello Gurbindo y José Vicente Urabayen (coordinador). **Fotografía:** Oskar Montero. **Traducción a euskera:** Kike Diez de Ulzurrun. **Realiza:** Heda Comunicación. **Imprime:** Gráficas Ona. **Tirada:** 4.400 ejemplares. **D.L.:** NA 1223-1996. **Difusión gratuita**

## Osoko Bilkura berezia eta premiazkoa

### 2013ko ekainaren 10a

**Hartu beharreko erabakiak, 2013ko ekainaren 9an herria jo zuen uholdearen aurrean.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Rosario Fraguas (IU-EB) izan ezik. Udalbatzak erabaki bat onetsi zuen aho batez, udalerria hondamendi-eremutzat deklaratzea eskatzeko. Era berean, Estatuko Meteorologia Agentziarekiko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekiko lankidetza-hitzarmenak berrikusteko eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, Udalak abisuak garaiz jaso ditzan, meteorologia-fenomenoek jendearengan eta ondasunetan eragiten dituzten kalteak ahalik eta gehien prebenitze eta gutxitze aldera. Udalbatzak, gainera, Nafarroako Gobernua premiatu zuen, auzokide ukituei ahalik eta laguntzarik handienak ematera. Udalak, halaber, bere esker ona agertu zien Obra Zerbitzuko langileei, Udaltzaingoari eta udalaren kirol-instalazioen enpresa kudeatzaileari.

## Osoko Bilkura arrunta

### 2013ko ekainaren 27a

**Lan-kontratudun finkoak funtzionario bihurtzeko prozesua hasteko proposamena.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Guillermo Ezquieta (Atarrabia Bai), Mercedes Sánchez (PSN-PSOE) eta Ángel Larraya (Nabai 2011) izan ezik. Udalbatzak lan-kontratudun finkoak funtzionario bihurtzeko prozesua onetsi zuen aho batez.

**Aldez aurreko erreklamazioaren berrespena, Nafarroako Gobernuaren aurrean tartekatua, Hezkuntza Baliabideetarako zuzendari nagusiaren 182/2013 Ebazpenaren aurka.** Osoko Bilkurak aldez aurreko erreklamazio berrespena onetsi zuen, Nafarroako Gobernuaren aurrean tartekatua, Hezkuntza Baliabideetarako zuzendari nagusiak emandako 182/2013 Ebazpenaren aurka. 10 boto izan ziren alde, eta 4 aurka (UPN).

**Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Udalak 8/2013 Foru Aginduaren aurka egindako aurretiazko erreklamazioa atzera bota izanaren aurka.** Udalbatzak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzea erabaki zuen, Udalak 8/2013 Foru Aginduaren aurka egindako aurretiazko erreklamazioa atzera bota izanaren aurka. 10 boto izan ziren alde, eta 4 aurka (UPN).

**2012ko ekitaldiko kontuen likidazio-espedientearen itxiera-kontuaren berri ematea.** Osoko Bilkurak 2012ko ekitaldiko kontuen likidazio-espedientearen berri jaso zuen.

**Banca Fiare-ri baimena eman zaio, gordailua pignorazio-bermeko tresna gisa erabil dezan mikrokredituko eragiketetarako.** Udalbatzak baimena eman dio Banca Fiare-ri, 30.000 euroko gordailua pignorazio-bermeko tresna gisa erabil dezan mikrokredituko eragiketetarako. 10 boto izan ziren alde, eta 4 abstentzio (UPN).

**Bilduren mozioa, AHTaren dirua udalerrietara eta herritarrengana bideratzeko.** Mozioa puntuz puntu bozkatu zen. 1., 3. eta 4. puntuak onetsi ziren, 10 boto izan baitziren alde, eta 4 kontra (UPN). Honatx zer eskatu zen: AHTari dagozkion lanak eta izapideak bertan behera utz eta geldi daitezela; ingurumenean eragindako kalteak ebaluatu eta konponketak egiteko (ahal bada) behar diren bitartekoak bultzatzea, eta mozioa Nafarroako Gobernura, NUKFera eta komunikabideetara igortzea. 2. puntuak hauxe proposatu zuen: AHTerako aurreikusitako dirua bideratzea lanerako eskubidea bermatzera eta ongizate nahiz zerbitzu publikoen arloko oinarrizko beharrak betetzera. Alkate Pedro Gastearenaren kalitatezko botoarekin onetsi zen, bi berdinketa izan ondoren: 7 boto alde (Bildu, EB eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea), eta 7 aurka (UPN eta Atarrabia Bai).

**Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabearen mozioa, hesia bigantxen ikuskizunetarako moldatzeko.** Udalbatzak mozioa onetsi zuen, 10 boto izan baitziren alde: Mikel Oteiza eta Pedro Mangado (Bildu), Atarrabia Bai, UPN eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea; 1 kontra (Ester Compains), eta 3 abstentzio: Pedro Gastearena eta Idoia Maya (Bildu) eta EB. Aurrera atera zen, beraz, Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabearen mozioa, hesia bigantxen ikuskizunetarako moldatzeko.

**Atarrabia homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobia gabeko udalerri deklaratzeko mozioa.** Udalak aho batez onetsi zuen 28-J plataformak aurkezturiko eskaera Atarrabia homofobia, lesfobia, transfobia eta bifobia gabeko udalerri deklaratzeko. Plataforma horretan pertsona lesbianak, gayak, transexualak eta bisexualak sarturik daude.

**UPNren premiazko mozioa Nafarroako foru araubidea defenditzeko. Eguneko aztergai honetan.** UPNko zinegotzi Sandra Rodríguezek bilkuratik alde egin zuen. Mozioaren premia bozkatuta, onetsi zen, 12 boto izan baitziren alde, eta 1 kontra (EB). Mozioa bera bozkatuta, atzera bota zen, 3 boto izan ziren alde (UPN), 9 aurka (Bildu, Atarrabia Bai eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea) eta abstentzio 1 (EB). Mozioak hauxe proposatu zuen: Nafarroako Foru Araubidea eta haren ikurrak defenditzea; alderdi politikoei eta erakunde publikoei eskatzea Nafarroako errealitate politikoa eta instituzionala ahalik eta gehien errespetatzeko; eta Foru Hobetzea eta Hitzarmen Ekonomikoa Nafarroaren aurrerabiderako tresnarik onenak direla adieraztea.

**Bilduren premiazko mozioa munduko herri guztiei elkartasuna agertzeko, Nafarroako eskubide historikoen alde eta herriek beren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidearen alde.** Mozioaren premia bozkatuta, onetsi zen, 12 boto izan baitzituen alde, eta 1 kontra (EB). Honatx mozioa: Estatuko eta munduko herri guztiei elkartasuna agertzea; Nafarroako Gobernuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin eta koordinaturik jardutea Nafarroako hitzarmen ekonomikoaren alde eta EAEko kontzertu ekonomikoaren alde; eta herriek beren etorkizuna erabakitzeko eskubidea aitortzearen alde. Mozioa onetsi zen, 9 boto izan baitzituen alde (Bildu, Atarrabia Bai eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea); 3 kontra (UPN), eta abstentzio 1 (EB).

**Atarrabia Bairen premiazko mozioa uholdeei buruz.** Mozioaren premia bozkatuta, aho batez onetsi zen. Mozioa aurkeztu aitzinetik, alkateak zuzenketa eske bat aurkeztu zuen aditzaren denbora aldatzeko, proposaturiko zenbait neurri jada abian jarrita baitzeuden. Atarrabia Bairen mozioa aho batez onetsi zen. Mozioak honetara premiatu du udala: esperientziaz gogoeta egitera, behar adina hobekuntza egitera eta uholdeek ukituriko auzoetako ordezkariekin hitz egitera (Martiket, Ultzama eta Nafarroako Gorteak); halaber, hidrologian eta hirigintzan adituak diren teknikariei informazioa eskatzera, Ultzamaren eta Argaren ibaiertzetako hirigintza-diseinuan aldaketak egite aldera; Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin, Iruñerriko Mankomunitatearekin eta Herrilanetako Departamentuarekin hitz egitera, Ultzama ibaiaren ibilguan aldaketak eragite aldera eta San Andres zubia berriz ere diseinatzera; eta, azkenik, Hiri Antolamendu Plan berriaren oinarrizko helburuetako bat arazo horren moldaketa izatea.

## Osoko bilkura berezia eta premiazkoa

### 2013ko uztailaren 2a

**Plantilla organikoa eta aurrekontua aldatzeko espedientea, aurreko udal kontu hartzailea behin-behineko langile gisa izendatzeko.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Natividad Barangüan (Atarrabia Bai) eta Ángel Larraya (Nabai 2011) izan ezik. Udalak plantilla organikoa eta aurrekontua aldatzeko espedientea onetsi zuen, aurreko udal kontu hartzailea behin-behineko langile gisa izendatzeko.

**Aurrekontua aldatzeko espedientea, kreditu nahikoa jasotzeko, uholdeek udalaren ondasunetan eragindako kalteak konpontzeko kostuari aurre egite aldera.** Udalak aho batez onetsi zuen 240.000 euroko kontusail bat gaitzea, uholdeek eragindako kalteen konponketa-kostuari aurre egite aldera.

## Osoko Bilkura arrunta

### 2013ko uztailaren 30a

**Aurrekontu-aldaketa, Atargiko estalkia zaharberritzeko lanak finantzatze aldera.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea izan ezik. Udalbatzak aurrekontu-aldaketa bat onetsi zuen aho batez, 22.124,82 euro Atargi ikastetxeko estalkia zaharberritzera bideratzeko.

**Beste udalerri eskualde-buru batzuekin batera, administrazioarekiko auzi-errekurtso bat tartekatzea Hezkuntza Departamentuaren aurka.** Udalbatzak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat tartekatzea erabaki zuen Hezkuntza Departamentuaren aurka, beste udalerri eskualde-buru batzuekin batera, 12 boto izan baitziren alde, eta 4 kontra (UPN).

**PSN-PSOEren mozioa LOMCE legearen aurka.** Udalbatzak PSN-PSOEren mozioa onetsi zuen. Hauxe: Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren proiektua erretira dadila eskatzea eta elkarrizketa-prozesuari ekitea, honakoekin hitz egiteko: Hezkuntza Erkidegoa, Estatuko Eskola Kontseilua, Autonomietako Eskola Kontseiluak, hezkuntza adituak, Kongresuko eta Senatuko hezkuntza batzordeak, Autonomietako Parlamentuak eta FEMP federazioa; erabakia Hezkuntza Ministeriora helaraztea. Mozioa onetsi zen, 12 boto izan baitziren alde, eta 4 kontra.

**GANASAko enpresa-batzordearen mozioa Gestión Ambiental de Navarra enpresako langileen alde eta Nafarroako ingurumen arloko zerbitzu publikoak mantentzearen alde.** Udalbatzak GANASAko langileei elkartasuna eta sostengua adierazteaz gain, Enplegua Erregularizatzeko Espedientea berehalakoan geldiarazteko eta ingurumen arloko oinarrizko zerbitzuak mantentzeko eskatu zuen. 12 boto izan ziren alde, eta 4 abstentzio.

**Bilduren mozioa Burlata Herriaren itxieraren aurka eta adierazpen askatasunaren alde.** 6 boto izan ziren alde (Bildu eta Nabai 2011); 5 kontra (UPN eta PSN-PSOE), eta 5 abstentzio (Atarrabia Bai eta EB). Mozioa, beraz, onetsi zen. Udalak, hortaz, Burlatako komunikabide baten adierazpen askatasunaren eta informazio askatasunaren aurkako erasoa salatu zuen, eta horrekin batera, Burlata Herria berehalakoan berrirekitzea eta langilearen aurka irekitako auzia artxibatzea.

**Bilduren mozioa Berdintasuna eta Etxe Beltza elkarteen egoitzen erasoen aurka.** Udalbatzak elkartasuna adierazi zien erasoa jaso zuten bi elkarteei eta errefusatu egin zuen ekintza horien egileen saialdia herritarren bizikidetza bortxatzeko, herri horietako herritar gehienek bere egiten dituzten ikurrei eraso egin baitzieten. 11 boto izan ziren alde, 4 aurka (UPN) eta abstentzio 1 (PSN-PSOE).

**Eledun Batzordearen proposamena, Galiziako tren-istripuaren biktimen alde.** Proposamenaren premia bozkatuta, aho batez onetsi zen. Osoko Bilkurak, halaber, Eledun Batzordearen proposamena onetsi zuen, udalbatzako kideen eta atarrabiar guztien doluminak eta atsekabea biktimen senitartekoei, lagunei eta lankideei helarazteko; elkartasuna adierazteko eta zauritutakoak lehenbailehen eta erabat sendatzeko nahia agertzeko; erreskatetaldeen, osasun langileen, odol-emaileen, boluntarioen, Angroisko auzokideen eta, oro har, galiziarren lana eskertu eta aintzat hartzeko; Galiziako erakundeei sostengua eta elkartasuna agertzeko; eta erabakia Galiziako Xuntara eta Santiago de Compostelako Udalera bidaltzeko.

**Udalaren osoko bilkuren aktak Udalaren webgunean ikusgai daude: www.villava.es**
**Las actas de los plenos municipales se pueden consultar en la página web del Ayuntamiento: www.villava.es**

## Pleno extraordinario y urgente
### 10 de junio de 2013

**Acuerdos a adoptar ante la inundación sufrida en la localidad el 9 de junio de 2013.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales excepto Rosario Fraguas (IU-EB), el Pleno aprobó por unanimidad un acuerdo para solicitar la declaración del municipio como zona catastrófica; pedir al Gobierno de Navarra que revise los protocolos de colaboración con la Agencia Estatal de Meteorología y la Confederación Hidrográfica del Ebro para que el Ayuntamiento reciba los avisos con la antelación suficiente para prevenir y minimizar en lo posible, los daños en personas y bienes producidos por fenómenos meteorológicos; y para instar al Gobierno de Navarra a que conceda las máximas ayudas posibles a los vecinos y vecinas afectados. Asimismo, la corporación municipal mostró su gratitud a los trabajadores del Servicio de Obras, a la Policía municipal y a la empresa gestora de las instalaciones deportivas municipales.

## Pleno ordinario
### 27 de junio de 2013

**Propuesta de inicio de proceso de funcionarización de personal laboral fijo.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los ediles excepto Guillermo Ezquieta (Atarrabia Bai), Mercedes Sánchez (PSN-PSOE) y Ángel Larraya (Nabai 2011), la corporación aprobó por unanimidad el proceso de funcionarización de personal laboral fijo.

**Ratificación de reclamación previa interpuesta ante el Gobierno de Navarra contra la Resolución 182/2013 del Director General de Recursos Educativos.** El Pleno aprobó por 10 votos a favor y 4 en contra de UPN la ratificación de reclamación previa interpuesta ante el Gobierno de Navarra contra la Resolución 182/2013 del Director General de Recursos Educativos.

**Interposición de recurso contencioso administrativo contra la desestimación de reclamación previa formulada por el Ayuntamiento contra la Orden Foral 8/2013.** La corporación municipal aprobó por 10 votos a favor y 4 en contra de UPN la interposición de recurso contencioso administrativo contra la desestimación de reclamación previa formulada por el Ayuntamiento contra la Orden Foral 8/2013.

**Dación de cuenta de cierre del expediente de liquidación de cuentas del ejercicio 2012.** El Pleno fue informado de la liquidación del expediente de cuentas del ejercicio 2012.

**Autorización a la Banca Fiare para utilizar el depósito constituido como instrumento de garantía pignoraticia para operaciones de microcrédito.** La corporación aprobó por 10 votos a favor y 4 abstenciones de UPN la autorización a la Banca Fiare para hacer uso del depósito constituido de 30.000 euros como instrumento de garantía pignoraticia para operaciones de microcrédito.

**Moción de Bildu para solicitar que el dinero del TAV se destine a los municipios y a la ciudadanía.** La moción fue sometida a votación punto por punto. Los puntos 1, 3 y 4, en los que se solicitaba la suspensión y paralización de las obras y trámites referentes al TAV, el impulso de los mecanismos necesarios para evaluar los daños medioambientales causados y sus posibles reparaciones, y el envío de la moción al Gobierno de Navarra, a la FNMC y a los medios de comunicación, fueron aprobados por 10 votos a favor y 4 en contra de UPN. El punto 2, en el que solicitaba que el dinero previsto para el TAV se destinara a garantizar el derecho al trabajo y para cubrir las necesidades básicas en bienestar y servicios públicos, fue aprobado por el voto de calidad del alcalde, Pedro Gastearena, tras dos empates de 7 votos a favor (Bildu, IU-EB y el concejal no adscrito Pello Gurbindo) y 7 en contra (UPN y Atarrabia Bai).

**Moción del concejal no adscrito Pello Gurbindo sobre acondicionamiento de vallado para el espectáculo de suelta de vaquillas.** La corporación aprobó por 10 votos a favor de Mikel Oteiza y Pedro Mangado (Bildu), Atarrabia Bai, UPN y el concejal no adscrito Pello Gurbindo, 1 voto en contra de Ester Compains y 3 abstenciones de Pedro Gastearena e Idoia Maya (Bildu) e IU-EB, la moción del concejal no adscrito Pello Gurbindo para acondicionar el vallado para el espectáculo de suelta de vaquillas.

**Moción para declarar a Villava-Atarrabia como municipio libre de homofobia, lesbofobia, transfobia y bifobia.** El Pleno aprobó por unanimidad la solicitud presentada por la plataforma 28-J compuesta por colectivos de personas lesbianas, gays, transexuales y bisexuales (LGTB) para declarar a Villava-Atarrabia como municipio libre de homofobia, lesbofobia, transfobia y bifobia.

**Moción de urgencia de UPN para defender el régimen foral de Navarra.** En este punto del orden del día, la concejala de UPN Sandra Rodríguez abandonó la sesión. Sometida a votación la urgencia de la moción, fue aprobada por 12 votos a favor y 1 en contra de IU-EB. Sometida a votación la moción, la corporación municipal rechazó por 3 votos a favor de UPN, 9 en contra de Bildu, Atarrabia Bai y el concejal no adscrito Pello Gurbindo y 1 abstención de IU-EB sumarse a la defensa del Régimen Foral de Navarra, de las instituciones de la Comunidad y de los símbolos que la representan; exigir a los partidos políticos y a las instituciones públicas el máximo respeto a la realidad política e institucional de Navarra; y expresar que el Amejoramiento del Fuero y el Convenio Económicos son los mejores instrumentos para el progreso en Navarra.

**Moción de urgencia de Bildu en solidaridad con todos los pueblos del mundo, en defensa de los derechos históricos de Navarra y del derecho de los pueblos a decidir su futuro.** Sometida a votación la urgencia de la moción, fue aprobada por 12 votos a favor y 1 en contra de IU-EB. La moción de Bildu, por la que se solicitaba la solidaridad con todos los pueblos del Estado y del mundo, la actuación conjunta y en coordinación por parte del Gobierno de Navarra y de la Comunidad Autónoma Vasca en defensa del convenio económico de Navarra y del concierto económico de la Comunidad Autónoma Vasca; y el reconocimiento del derecho de los pueblos a decidir su futuro, fue aprobada por 9 votos a favor de Bildu, Atarrabia Bai y el concejal no adscrito Pello Gurbindo, 3 en contra de UPN y 1 abstención de IU-EB.

**Moción de urgencia de Atarrabia Bai sobre las inundaciones.** Sometida a votación la urgencia de la moción, fue aprobada por unanimidad. Antes de presentar la moción, el alcalde presentó una enmienda para cambiar el tiempo verbal ("seguir manteniendo"), puesto que ya se han puesto en marcha varias de las medidas propuestas. La enmienda fue aprobada por unanimidad. Sometida a votación la moción, por la que se instaba a reflexionar sobre la experiencia vivida y a seguir introduciendo las mejoras necesarias; a seguir manteniendo conversaciones con los vecinos de los barrios afectados (Martiket, Ultzama y Cortes de Navarra); a seguir recabando información de técnicos especialistas en hidrología y urbanismo de cara a introducir cambios en el rediseño urbanístico de las márgenes de los ríos Ultzama y Arga; a mantener conversaciones con la Confederación Hidrográfica del Ebro, la MCP y con el Departamento de Obras Públicas para emprender modificaciones en el curso del río Ultzama y el rediseño del puente de San Andrés; y a seguir fijando como uno de los objetivos fundamentales del nuevo Plan de Ordenación Urbana la solución de este problema, fue aprobada por unanimidad.

## Pleno extraordinario y urgente
### 2 de julio de 2013

**Expediente de modificación de plantilla orgánica y presupuestaria para el nombramiento como personal eventual del anterior interventor municipal.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales excepto Natividad Barangüan (Atarrabia Bai) y Ángel Larraya (Nabai 2011), la corporación aprobó por 12 votos a favor de Bildu, UPN, PSN-PSOE, el concejal no adscrito Pello Gurbindo e IU-EB, y 3 en contra de Atarrabia Bai el expediente de modificación de plantilla orgánica y presupuestaria para el nombramiento como personal eventual del anterior interventor municipal.

**Expediente modificación presupuestaria para consignar crédito suficiente para atender el coste de las reparaciones de los daños padecidos en los bienes municipales a causa de las inundaciones.** El Pleno aprobó por unanimidad habilitar una partida presupuestaria de 240.000 euros para atender el coste de las reparaciones de los daños causados por las inundaciones.

## Pleno ordinario
### 30 de julio de 2013

**Modificación presupuestaria para financiación de la obra de rehabilitación de la cubierta de Atargi.** En una sesión a la que asistió toda la corporación excepto el concejal no adscrito Pello Gurbindo, el Pleno aprobó por unanimidad una modificación presupuestaria para destinar 22.124,82 € a la obra de rehabilitación de la cubierta del colegio Atargi.

**Interposición de un recurso contencioso administrativo junto a otros municipios cabecera de comarca ante el Departamento de Educación.** El Pleno aprobó por 12 votos a favor y 4 en contra de UPN la interposición de un recurso contencioso administrativo junto a otros municipios cabecera de comarca ante el Departamento de Educación.

**Moción de PSN-PSOE ante la LOMCE.** El Pleno aprobó por 12 votos a favor y 4 abstenciones la moción de PSN-PSOE para solicitar la retirada del Proyecto de Ley Orgánica de la Mejora de la Calidad Educativa (LOMCE) y la apertura de un proceso de diálogo en el que participe la Comunidad Educativa, el Consejo Escolar del Estado, los Consejos Escolares Autonómicos, expertos educativos, las Comisiones de Educación en el Congreso y en el Senado, los Parlamentos Autonómicos y la FEMP; y para dar traslado de este acuerdo al Ministerio de Educación.

**Moción del comité de empresa de GANASA en solicitud de apoyo de los ayuntamientos a los trabajadores de Gestión Ambiental de Navarra y por el mantenimiento de los servicios públicos ambientales en Navarra.** La corporación aprobó por 12 votos a favor y 4 abstenciones mostrar su apoyo y solidaridad a los trabajadores y trabajadoras de GANASA, solicitar la paralización inmediata del Expediente de Regulación de Empleo y exigir el mantenimiento de los servicios ambientales básicos que vienen realizando.

**Moción de Bildu ante el cierre de Burlata Herria y a favor de la libertad de expresión.** El Pleno aprobó por 6 votos a favor de Bildu y Nabai 2011, 5 en contra de UPN y PSN-PSOE y 5 abstenciones de Atarrabia Bai e IU-EB denunciar el ataque contra la libertad de expresión y la libertad de información a un medio de comunicación de Burlada y pedir la reapertura inmediata de Burlata Herria y el archivo de la causa abierta contra su colaborador.

**Moción de Bildu ante los ataques a las sedes de las sociedades Berdintasuna y Etxe Beltza.** La corporación aprobó por 11 votos a favor, 4 en contra de UPN y 1 abstención de PSN-PSOE mostrar la solidaridad del Ayuntamiento con las dos sociedades atacadas y "rechazar el intento, por parte de los/as autores/as de estos actos, de violentar la convivencia ciudadana atacando los símbolos que la mayoría de estos pueblos sienten como suyos".

**Propuesta de la Junta de Portavoces en apoyo a las víctimas del accidente ferroviario de Galicia.** Sometida a votación la urgencia de la propuesta fue aprobada por unanimidad. Igualmente, el Pleno aprobó por unanimidad la propuesta de la Junta de Portavoces para trasladar el pésame y la profunda condolencia de los miembros de la corporación y de todo el pueblo villavés a los familiares, amigos y compañeros de las víctimas; expresar su solidaridad y su deseo de que los heridos tengan una pronta y total recuperación; agradecer y reconocer la labor de los equipos de rescate, sanitario, donantes de sangre, voluntarios , vecinos de Angrois y el pueblo gallego en general; mostrar su apoyo y solidaridad a las instituciones gallegas; y trasladar el acuerdo a al Xunta de Galicia y al Ayuntamiento de Santiago de Compostela.




# Hobekuntzak Atargi ikastetxe publikoan eta Amalur haur eskolan

Atargi ikastetxe publikoko teilatua berritu da uda partean. TAPARSA arduratu da lanak egiteaz; hau da, teilak eta sabaizuloak aldatzeaz, hodiak garbitzeaz eta teilatua osatzen duten isurkiak tratatzeaz. Lanak abuztuaren 9tik 23ra egin ziren eta 43.886,94 euroko kostua izan dute. Udalak 22.124,82 euro jarri ditu, eta Nafarroako Gobernuak, gainerakoa, hau da, 21.762,12 euro.

Haur eskolan, bestalde, hainbat erreforma-lan egin dira, instalazioak 72/2012 Foru Dekretura egokitzeko. Hona hemen, besteak beste, nobedaderik esanguratsuenak: ikasgeletan kamerak paratzea, haurtzainek haurrak hobeki zaintzeko; komunetan komun zulo gehiago jartzea; barneko ateak aldatzea harrapaketen aurkako sistema ezartzeko; kanpo-barandak paratzea eta barne-barandak aldatzea. Lanak uztailaren 30etik abuztuaren 16ra egin ziren eta 29.578,90 euroko kostua izan dute.

# Mejoras en el colegio público Atargi y en la escuela infantil Amalur

El colegio público Atargi ha aprovechado el parón educativo veraniego para renovar su cubierta. La empresa TAPARSA ha sido la encargada de acometer los trabajos, que se han centrado en sustituir tejas y lumbreras, limpiar canalones y tratar los diferentes faldones que conforman el tejado. Las obras se llevaron a cabo del 9 al 23 de agosto y su coste ha ascendido a 43.886,94 euros, de los cuales 22.124,82 han sido aportados por el Ayuntamiento y el resto, 21.762,12 euros, por el Gobierno de Navarra.
Por su parte, la escuela infantil ha llevado a cabo varias reformas para adecuar sus instalaciones al Decreto Foral 72/2012. Entre las novedades más significativas destacan la colocación de cámaras en las aulas para mejorar la vigilancia por parte de los cuidadores, el aumento de inodoros en los aseos, la modificación de las puertas interiores para instalar el sistema anti-atrapadedos, la colocación de barandillas exteriores y la modificación de las interiores. El coste de las obras, que se han desarrollado del 30 de julio al 16 de agosto, ha sido de 29.578,90 euros. ■

## ■ Fermín Tirapu eta Aita Murillo kaleak asfaltatuko dira

Udalak Aita Murillo eta Fermín Tirapu kaleak asfaltatuko ditu. Aurreikuspenen arabera, Fermín Tirapu-ko lanak ikasturtea hasi baino lehen dira egitekoak; Burlatako mugatik Bidaburua, Ezkaba eta Fermín Tirapu kaleen arteko errotondaraino, eta errotonda bera ere asfaltatuko da. Era berean, Hilerriko Bidean eta Ultzama kalean jarritako badenen antzekoak paratuko dira ibilgailuen abiadura moteltzeko.

## Asfaltado de las calles Fermín Tirapu y Padre Murillo

El Ayuntamiento va a llevar a cabo el asfaltado de las calles Padre Murillo y Fermín Tirapu. La actuación prevista en Fermín Tirapu para antes del inicio del curso escolar incluirá el tramo que va desde el límite de Burlada hasta la rotonda de intersección entre las calles Bidaburua, Ezkaba y Fermín Tirapu y el asfaltado de la rotonda. Asimismo, se colocará algún badén decelerador de asfalto para reducir la velocidad, similar a los que se han instalado en el Camino del Cementerio y en la calle Ulzama. ■

## ■ Aitor Garralda, udaleko kontu hartzaile berria

Udaz geroztik, Aitor Garralda Iriarte da Udaleko kontu hartzaile berria. Garraldak 1992tik aurrera kontu hartzaile postuan aritu den Juan José Bojen lekua hartu du.

## Aitor Garralda, nuevo interventor municipal

Aitor Garralda Iriarte es desde este verano el nuevo interventor del Ayuntamiento. Garralda sustituye en el cargo a Juan José Boj, que ocupaba el puesto de interventor desde 1992. ■

## ■ Irailaren 27an aurkeztuko da egungo hirigintza-ereduari buruzko diagnosia

Herritarrek diagnosiaren ondorioak ezagutzeko aukera izanen dute irailaren bukaeran. Udalak herriko hirigintza-egoerari buruz egindako diagnosia da. Hitzordua Kultur Etxean izanen da, hilaren 27an, 19:00etan.
Topaketan egungo hirigintza-eredua azalduko da, bai eta auzokideek, elkarteek eta taldeek mahai gainean jarritako beharrak ere. Udala, izan ere, haiekin guztiekin ari da lanean herria hirigintzaren aldetik berriz ere diseinatzeko.
Urrian beste bi lan-talde jarriko dira abian, esparru publikoetan hobekuntzak aztertu eta proposatzeko (eskola-bideak eta bidegorria diseinatzea), bai eta eskola eta kirol esparruetan ere (Dominiken eremuan, nagusiki).

## El diagnóstico sobre el modelo urbanístico actual se presentará el 27 de septiembre

La ciudadanía tendrá la oportunidad de conocer las conclusiones del diagnóstico que ha llevado a cabo el Ayuntamiento sobre la situación urbanística de la localidad a finales de septiembre. La cita será el día 27 en la Casa de Cultura a las 19:00.
El encuentro servirá para exponer el modelo urbanístico actual y las necesidades planteadas por vecinos y vecinas, asociaciones y colectivos con los que el consistorio está trabajando conjuntamente para llevar a cabo el rediseño urbanístico de la localidad.
En octubre se pondrán en marcha dos nuevos grupos de trabajo para analizar y proponer mejoras en los espacios públicos (diseño de caminos escolares y carril-bici) y en los espacios escolares y deportivos (principalmente en la zona de Dominicos). ■



## ■ HHBak bere Zerbitzu Elektronikoen Gutuna aurkeztu du

Herritarrak Hartzeko Bulegoak bere Zerbitzu Elektrikoen Gutuna aurkeztu du, gardentasuna hobetze aldera eta bere gain hartutako konpromisoen berri emate aldera. Udalak bere egoitzan eskaintzen dituen aurrez aurreko zerbitzuen osagarri telematiko bat da (webgune, egoitza elektroniko, sare sozial, posta elektroniko, sakelako eta abarren bidez).
Bide horiek erabiliz, herritarrek udalaren informazioa eskuratu, Udalarekiko izapideak kudeatu eta udalaren bizitzan parte hartzen dute.
Udalak, bere aldetik, konpromisoa hartu du bide horietarako irisgarritasuna bermatzeko; informazio fidagarri, eguneratu eta osoa emateko; galderei eta eskaerei erantzuteko; bide telematikoz kudea daitekeen izapide kopurua handitzeko; eta kexa eta iradokizun gehienei erantzuteko (sekulan ez % 80 baino gutxiago). Halaber, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuak gaitzeko konpromisoa hartu du (gutxienez ere bi konturi buruzko erabakiak urtean).
HHBak herritarrei eskatu die jakinarazteko kudeaketa telematikoaren zer kontu ez dabilen ongi, zerbaitek huts egiten badu, eta zerbitzua zuzendu edo hobetzeko proposamenak ere bidaltzeko.

## La OAC presenta su Carta de Servicios Electrónicos

Con vistas a mejorar la transparencia e informar de los compromisos que asume, la oficina de Atención Ciudadana hace pública su Carta de Servicios Electrónicos, un complemento telemático (a través de la página web, sede electrónica, redes sociales, correo electrónico, móviles, etc.) a los servicios presenciales que ofrece desde su sede en el Ayuntamiento.
A través de estos canales, la ciudadanía accede a información municipal, puede gestionar trámites con el Ayuntamiento y participar en la vida municipal.
El Ayuntamiento, por su parte, se compromete a garantizar la accesibilidad a estos canales; a proporcionar información completa, fiable y actualizada y a contestar a las consultas y solicitudes; a ir aumentando el número de tramites que puede gestionar telemáticamente; y a contestar el mayor número de quejas y sugerencias (nunca menos del 80%) y habilitar procesos de toma de decisión por parte de la ciudadanía (al menos sobre dos asuntos al año).
La OAC pide a la ciudadanía que si algún aspecto de la gestión telemática no resulta satisfactoria, se ponga en su conocimiento, lo mismo que si hay propuestas para corregir o mejorar el servicio. ■

## Berdintasuna eta emakumea > Igualdad y mujer




### ■ II. Berdintasun Plana, urrirako prest

Izan ere, irailean eramanen da osoko bilkurara emakume eta gizonen arteko eta haurren arteko II. Udal Berdintasun Plana, prozesu partehartzaile bat burutu ondoren. Horrela, inkestak egin dira informazioa eta iritziak jasotzeko, herritarren eta talde politikoen ekarpenak jaso dira eta azterlan bat egin da Atarrabiak aukera berdintasunaren arloan zer-nolako premiak dituen jakiteko. Udalbatzak behin betiko onespena emanen dio, Plana abian jartzeko. Urrian, Planaren bertsio murriztu bat etxez etxe banatuko da.

### Listo para octubre el II Plan de Igualdad

Tras un proceso participativo en el que se han realizado encuestas para obtener información y opiniones, se han recogido aportaciones de la ciudadanía y de los grupos políticos y se ha elaborado un estudio sobre las necesidades de Villava en materia de igualdad de oportunidades, el II Plan municipal de Igualdad entre mujeres y hombres y niñas y niños se llevará a Pleno en septiembre para su aprobación definitiva y puesta en marcha. En octubre se buzoneará una versión reducida del Plan. ■

### ■ Irailaren 12an itxiko da Berdinteka-n behin betiko izena emateko epea

Berdinteka udal ludoteka bat da, doakoa, genero ikuspegian oinarritua, 6 eta 12 urte arteko haurrei zuzendua eta zerbitzua urriaren 14tik 2014ko ekainaren 26ra bitarte Kultur Etxean emanen duena. Irailaren 13ra arteko epea dago izena emateko, 012 telefonoaren bidez, ekaineko aurre-matrikulazioaren ondotik. Astelehenetan, zerbitzua gaztelaniaz eskainiko da, eta asteazkenean, euskaraz. Ordutegia 17:00etatik 19:00ak arte izanen da.




### La inscripción definitiva para la Berdinteka finaliza el 12 de septiembre

La Berdinteka es una ludoteka municipal con perspectiva de género y gratuita dirigida a niños y niñas de entre 6 y 12 años que dará servicio del 14 de octubre al 26 de junio de 2014 en la casa de Cultura. Hasta el 13 de septiembre hay tiempo para realizar la inscripción definitiva a través del teléfono 012, tras las prematrícula realizada en junio. Los lunes se ofrece el servicio en castellano y los miércoles en euskera.
El horario es de 17:00 a 19:00. ■

### ■ Atarrabiako entitateak koordinaziopean ari dira genero-indarkeriako kasuei hobeki erantzuteko

Genero Indarkeria arloko Jarduketa Koordinaturako Udal Protokoloa taxutu da, azken hilabete hauetan udalaren Berdintasun alorrak Gizarte Zerbitzuekin, Osasun Etxearekin, Emakumearendako Laguntza Juridikoarekin, Udaltzaingoarekin, ikastetxeekin, Gaztelekurekin eta Kultur nahiz Kirol zerbitzuekin batera lanean jardun ondoren. Era horretako hirugarren protokoloa izanen da Nafarroan, Antsoaingoaren eta Lizarrakoaren ondotik, eta aurreikuspenen arabera, urrian bidaliko da osoko bilkurara, onets dezan. Atarrabiako elkarte eta taldeek ere izanen dute protokoloarekin bat egiteko aukera; hartara, irailaren 13a baino lehen agiri bat bete eta HHBean aurkeztu beharko dute. Agiria helarazi egin zaie. Funtsean, protokoloak finkatu du udal genero-indarkeriaren arloan arlo bakoitzak zer eskumen dituen, ahalik eta koordinaziorik onena lortzeko eta bikoiztasunik ez izateko.

### Las entidades de Villava se coordinan para responder mejor a los casos de violencia de género

Varios meses de trabajo del área de Igualdad municipal junto con Servicios Sociales, Centro de Salud, Atención jurídica a la mujer, Policía Municipal, centros educativos, Gazteleku y servicios de Cultura y Deportes, han dado lugar al que será el primer Protocolo de Actuación Municipal Coordinada en materia de Violencia de Género. Será el tercero en toda Navarra, tras Ansoáin y Estella y está previsto que vaya a Pleno para su aprobación en el mes de octubre. También las asociaciones y colectivos de Villava podrán adherirse a este protocolo, entregando en la OAC antes del 13 de septiembre un documento cumplimentado que se les ha hecho llegar.
Básicamente, este protocolo fija las competencias de cada área municipal en materia de violencia de género con el objetivo de lograr una coordinación óptima y evitar duplicidades. ■

### ■ Jubiloteka: itxaron zerrenda zabalik

Ikasturte hasiera honetan toki guztiak beteta badaude ere, Jubilotekak itxaron zerrenda bat dauka, tokiren bat hutsik geratzen bada zerrenda horren bidez betetzeko. Une honetan ez dago inor ere izena emanda itxaron zerrendan. Zerrendan sartzeko, familia interesatuek e-posta bat bidali behar dute, izen-abizenak eta harremantelefono bat adierazita. Mendekoentzat pentsaturiko zerbitzua da, haien zaintzaileek berendako denbora bat izan dezaten. Mendekoen psikomotrizitatea eta memoria lantzen da, bai eta arlo kognitiboarekin zerikusia duen guztia ere, bakoitzaren beharretara moldatutako jardueren bidez. Zerbitzua 10:00etatik 13:00ak arte dago zabalik.

### La Jubiloteka mantiene abierta su lista de espera

El plazo de inscripción para personas empadronadas en Villava finaliza el 13 de septiembre. La matrícula debe efectuarse obligatoriamente en el teléfono 902 217 012, de 8:00 a 19:00, de lunes a viernes. El abono se realizará en la misma llamada a través de tarjeta de crédito. Un/a comunicante sólo podrá inscribir a miembros de la misma unidad familiar. Todas las inscripciones de una llamada se cargarán en la misma tarjeta de crédito.
En el caso de quedar plazas libres, las no empadronadas podrán matricularse del 16 al 20 de septiembre exclusivamente en la Casa de Cultura de 16:00 a 21:00. Deberán entregar en ese momento la carta de pago que justifique el abono.
El precio de los cursos de Manualidades y Pintura Óleo es de 125 € para personas empadronadas y 170 para no empadronadas. Inglés para viajeros cuesta 86 € y 118 €, respectivamente; Danzas Vascas cuesta 70 € y 95 €; el de Fotografía 45 € y 60 €; y el Club de lectura es gratuito para empadronados y cuesta 25 € a las personas no empadronadas.

| CURSO / IKASTAROA | DIA / EGUNA | HORARIO / ORDUTEGIA | FECHAS / DATAK |
|---|---|---|---|
| Nafarroako historia / Historia de Navarra | Osteguna / Jueves | 19:30 – 20:45 | urriak 24 - apirilak 10 / 24 octubre – 10 abril |
| Irakurketaren Txokoa / Club de lectura | Hilaren 2. astearteа / 2º martes de mes | 19:00 – 20:30 | urriak 15 – maiatzak 13 / 15 octubre – 13 mayo |
| Irakurketaren Txokoa / Club de lectura | Hilaren 4. astearteа / 4º martes de mes | 19:00 – 20:30 | urriak 22 – maiatzak 27 / 22 octubre – 27 mayo |
| Ingelesa bidaiarientzat (2. maila) / Inglés para viajeros (2º nivel) | Astelehena / Lunes | 19:45 – 21:15 | urriak 21 – maiatzak 12 / 21 octubre – 12 mayo |
| Ingelesa bidaiarientzat (1. maila) / Inglés para viajeros (1º nivel) | Asteazkena / Miércoles | 19:45 – 21:15 | urriak 23 – maiatzak 15 / 23 octubre – 14 mayo |
| Argazkia (1. maila, trinkoa) / Fotografía (1º nivel, intensivo) | Astelehena / Lunes | 19:15 – 21:15 | urriak 21 – azaroak 25 / 21 octubre – 25 noviembre |
| Argazkia (2. maila, trinkoa) / Fotografía (2º nivel, intensivo) | Astelehena / Lunes | 19:15 – 21:15 | apirilak 28 – ekaina 2 / 28 abril – 2 junio |
| Euskal Dantzak (1. maila) / Danzas Vascas (1º nivel) | Asteazkena / Miércoles | 19:00 – 20:00 | urriak 23 – maiatzak 14 / 23 octubre – 14 mayo |
| Euskal Dantzak (2. maila) / Danzas Vascas (2º nivel) | Asteazkena / Miércoles | 20:15 – 21:15 | urriak 23 – maiatzak 14 / 23 octubre – 14 mayo |
| Olio pintura / Pintura Óleo | Astelehena / Lunes | 9:30–11:30 | urriak 21 – maiatzak 12 / 21 octubre – 12 mayo |
| Olio pintura / Pintura Óleo | Astearteа / Martes | 19:15 – 21:15 | urriak 22 – maiatzak 13 / 22 octubre – 13 mayo |
| Olio pintura / Pintura Óleo | Asteazkena / Miércoles | 9:30–11:30 | urriak 23 – maiatzak 14 / 23 octubre – 14 mayo |
| Eskulanak / Manualidades | Astelehena / Lunes | 17:00 – 19:00 | urriak 21 – maiatzak 12 / 21 octubre – 12 mayo |
| Eskulanak / Manualidades | Astearteа / Martes | 9:30 – 11:30 | urriak 22 – maiatzak 13 / 22 octubre – 13 mayo |
| Eskulanak / Manualidades | Asteazkena / Miércoles | 17:00 – 19:00 | urriak 23 – maiatzak 14 / 23 octubre – 14 mayo |
| Eskulanak / Manualidades | Osteguna / Jueves | 9:30 – 11:30 | urriak 24 – maiatzak 15 / 24 octubre – 15 mayo |



talleres Villava
Reparación integral de:
• chapa • mecánica
• pintura • electricidad
POLÍGONO LANDAZABAL, PARCELA 1, NAVE 8
TEL.: 948 13 02 30 • FAX: 948 38 29 60

## Kultura > Cultura



### ■ "El nombre de la rosa" berriz ere ikusgai

Atarrabiako aurre-estreinaldiak sekulako arrakasta izan zuen joan den maiatzaren 31n. Hori ikusita, Atarrabiako jendeak "El nombre de la Rosa" antzezlana berriz ere ikusteko aukera izanen du urriaren 20an, igandea, 20:00etan hasita. Ados Teatroa, Al Revés Producciones, Tres Tristes Tigres eta La Nave Producciones talde eta etxeek ekoiztutako lana da, Umberto Eco idazlearen lanean oinarritua. Aktoreen artean, besteak beste, Karra Elejalde eta Juan José Ballesta ari dira. Sarrerak 10 € balio du.

### Reposición de "El nombre de la rosa"

Tras el éxito absoluto del preestreno que tuvo lugar en Villava el pasado 31 de mayo, el domingo 20 de octubre, a las 20:00, el público de Villava tendrá una nueva oportunidad de ver la obra "El nombre de la Rosa", una producción de las compañías Ados Teatroa, Al Revés Producciones, Tres Tristes Tigres y La Nave Producciones a partir de la obra de Umberto Eco. En el reparto, entre otros, Karra Elejalde y Juan José Ballesta. El precio de la entrada es 10 €. ■



■ **BIDAIA SEGOVIA ETA VALLADOLIDERA.** Ekainaren 14tik 17ra, Atarrabiako 45 auzokidek kultur bidaia egin zuten Segovia eta Valladolid ikusteko. **VIAJE A SEGOVIA Y VALLADOLID.** Del 14 al 17 de junio 45 vecinos y vecinas de Villava realizaron un viaje cultural a Segovia y Valladolid. ■

## Festak > Fiestas

### ■ Pankarta txikien lehiaketa

12 urtetik beheko koadrilak eta lagun taldeak gonbidatuak daude jaietarako beren pankartekin Udaletxe plazan agertzera, urriaren 4an, 18:30ean. Teknika, materialak eta pankartaren neurriak libreak dira. Ez da izena eman behar parte hartzeko, aski baita hitzordura joatea.
Sari banaketa urriaren 12an, larunbatean, eginen da, 12:00etan, Udaletxeko atondoan, haurren txupinazoa jaurtiki ondoren.

### Concurso de pancartas txiki

Las cuadrillas y grupos de amigos menores de 12 años están convocados a las 18:30 del viernes 4 de octubre en la Plaza Consistorial, donde deben presentarse con sus pancartas de fiestas. La técnica, los materiales y la medida de la pancarta son libres. Para participar no hay que inscribirse, basta con acudir a la cita.
La entrega de los premios tendrá lugar el sábado 12 de octubre, a las 12:00, tras el lanzamiento del chupinazo txiki, en el zaguán del Ayuntamiento. ■

## Hezkuntza > Educación

### ■ Gurasoen Eskola

Urriaren erdian, "Aitaren eta amaren rola gaur egun, eta oinarrizko trebetasunak komunikatzeko eta hezteko" ikastaroaren oinarrizko maila jarriko da abian. Guztira, astean behingo zazpi saio izanen dira, bina ordukoak, ostegunetan egitekoak; hain zuzen ere, urriaren 17an, 24an eta 31n eta azaroaren 7an, 14an, 21ean eta 28an. Goizeko aukera eskaini da, 9:30etik 11:30era, bai eta arratsaldekoa ere, 19:00etatik 21:00etara. Azkenik, familia gehienek zer ordutegitan izena ematen duten, aukera huraxe aterako da aurrera. Izena Kultur Etxean eman behar da, irailaren 27a baino lehen.
Gurasoen Eskolak 8 urte darama zabalik, guztiak ere arrakastaz. Gure gaitasunak amatasunean eta aitatasunean hobetzeko baliabide bat da; adibidez, semealabekiko komunikazioan edota mugen erabileran.
Argibideak: escueladepadresymadres@hotmail.com

### Escuela de Madres y Padres

A mediados de octubre, la escuela de Madres y Padres pondrá en marcha el curso del nivel básico "El rol de padre y madre hoy en día y las habilidades básicas para comunicar y educar". Serán siete sesiones semanales de dos horas, los jueves 17, 24 y 31 de octubre y los jueves 7, 14, 21 y 28 de noviembre.
Se ofrece la opción de mañana: de 9:30 a 11:30 y de tarde, de 19:00 a 21:00. Finalmente saldrá adelante el horario en el que se inscriban más familias. La inscripción debe realizarse en la Casa de Cultura antes del 27 de septiembre.
La Escuela de Madres y Padres lleva 8 años funcionando con éxito en Villava-Atarrabia. Se plantea como un recurso de mejora de nuestras capacidades en la maternidad y paternidad, por ejemplo en la comunicación con hijas e hijos o en el manejo de los límites.
Más información, en:
escueladepadresymadres@hotmail.com ■


Anúnciate en
villavaatarrabia
948 13 67 66







## ■ Zazpi gazte, "More than sport" egitasmoan

Bigarren urtez jarraian, Polonia izan da "Gazteria ekimenean" programaren herrialde anfitrioia. Europako gazteria trukatzeko egitasmo bat da. Atarrabia duela hiru urtez geroztik ari da parte hartzen. Egitasmoa abuztuaren 10etik 18ra bitarte egin zen Sulejów eta Varsovia hirietan, eta 18 eta 22 urte arteko gazteek parte hartu zuten. Txekiar Errepublika, Polonia, Turkia, Bulgaria, Italia, Kroazia eta Espainiako gazteak elkartu ziren. Atarrabiako zazpi gazte joan ziren, eta esperientzia bete-betean gozatu zuten. "More than sport" egitasmoa Poloniako FMW kultur elkarteak antolatzen du, eta bi zati izan zituen: lehenean, kirol jarduerak prestatu ziren eta Sulejóweko kanpin batean egin zen, abuztuaren 10etik 15era. Varsovian, berriz, kirol ekitaldiak egin ziren, abuztuaren 15etik 17ra.
Udalak oso ontzat jo du egitasmoa eta aztergai dauka hurrengo topaketa herrian bertan antolatzeko aukera, bi urtez gonbidatu gisa joan ondoren.

## Siete jóvenes, en el proyecto "More than sport"

Polonia ha sido, por segundo año consecutivo, el país anfitrión del programa europeo de intercambio de jóvenes "Juventud en acción" en el que Villava participa desde hace tres años. El proyecto tuvo lugar del 10 al 18 de de agosto en las ciudades de Sulejów y Varsovia y contó con la participación de jóvenes de entre 18 y 22 años de la República Checa, Polonia, Turquía, Bulgaria, Italia, Croacia y España. De Villava acudieron 7 jóvenes, que disfrutaron a tope de la experiencia vivida. El proyecto "More than sport", organizado por la asociación cultural polaca FMW, tuvo dos partes: una primera parte de preparación de las actividades deportivas, que se desarrolló en un camping de Sulejów del 10 al 15 de agosto, y la celebración de los eventos deportivos programados, que se realizó en Varsovia del 15 al 17 de agosto. La valoración del proyecto ha sido muy positiva y desde el Ayuntamiento se está estudiando la posibilidad de organizar el próximo encuentro en la localidad, después de dos años de participación como invitado. ■

## ■ Skate eta txalaparta ikastaroak, irailean

Gaztelekuk bi ikastaro egin ditu abuztuari bukaera emateko: kustomizaje eta serigrafia ikastaroak, hain zuzen ere. Kustomizaje ikastaroa abuztuaren 22tik irailaren 3ra bitarte egin zen, eta 9 neska aritu ziren: eta serigrafiakoa, berriz, abuztuaren 26tik irailaren 11ra, eta 8 gaztek parte hartu zuten.
Tailerrei irailean emanen zaie segida. Izan ere, hilaren 3tik 19ra, skate ikastaro bat eginen da astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era. Oraindik ere bada toki librerik eta 5 euro balio du. Uda osoan, Gaztelekun skate saioak egin dira astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta hilaren 30an, ostiralean, "Skate Day" saioa egin zen, edo bestela esanda, topaketa bat Gaztelekuko skateparkean.
Irailaren 17an, bestalde, txalaparta ikastaroa abiaraziko da, euskaraz. Saioak astearte eta ostegunetan eginen dira, 19:00etatik 20:30era. Ikastaroak 10 euro balio du.

## Cursos de skate y txalaparta, en septiembre

El Gazteleku ha despedido el mes de agosto con un curso de customizaje y otro de serigrafía. El curso de customizaje, que tuvo lugar entre el 22 de agosto y el 3 de septiembre, reunió a 9 chicas; y el de serigrafía, que se desarrolló entre el 26 de agosto y el 11 de septiembre, a 8 jóvenes.
Los talleres continuarán en septiembre. Desde el 3 al 19 de septiembre se realizará un curso de skate los martes y los jueves de 19:00 a 20:30. Todavía hay plazas libres y el curso cuesta 5 euros. A lo largo del verano, el Gazteleku ha acogido sesiones de skate los martes y jueves de 19:00 a 21:00 y el viernes 30 de agosto se celebró el "Skate Day", un encuentro en el skatepark del Gazteleku.
Por otro lado, el 17 de septiembre se pondrá en marcha un taller de txalaparta en euskera. Las clases tendrán lugar los martes y jueves de 19:00 a 20:30 y el curso cuesta 10 euros. ■



**■ 18 GAZTE, DENBORA LIBREKO AURRE-MONITORE IZATEKO IKASTAROAN.** Ikastaroa ekainaren 25etik 28ra bitarte egin zen eta udalaren diru-laguntza jasotako gazte proiektuetako bat izan zen. Denbora libreko aurre-monitore izateko ikastaroa Scouts San Andrés taldearen ekimena izan zen eta harrera ona izan zuen. Horrela, 16 eta 18 urte arteko 18 gaztek parte hartu zuten; batzuk Scouts taldekoak, eta beste batzuk, ez. **18 JÓVENES EN EL CURSO DE PREMONITOR DE TIEMPO LIBRE.** El Gazteleku acogió del 25 al 28 de junio un curso de premonitor de tiempo libre que se enmarcaba dentro de los proyectos juveniles que obtuvieron subvención municipal. El curso fue una iniciativa del grupo de Scouts San Andrés. Tuvo una gran acogida y reunió a 18 jóvenes de entre 16 y 18 años, algunos del grupo de Scouts y otros ajenos a él. ■

## ■ Gaztelekuren irudi berria

Gaztelekuri aurpegia garbitu diote uda partean. Barnealdea margotu da (bulegoak, areto nagusia, ateak, pasabideak, etab.), bai eta kanpoaldea ere, eta kortxo berriak paratu dira, antolatzen diren jardueren berri emateko. Areto multimedian, gainera, hiru ordenagailu berri jarri dira, eta udazkeneko programazioarekin batera jarriko dira martxan.
Bestalde, Gaztelekun bilera edo entseguak egiteko gela bat eskatu nahi duten gazte guztiek irailaren 2tik 20ra aurkeztu beharko dute eskaera.



## El Gazteleku luce nueva imagen

Este verano el Gazteleku ha sufrido un lavado de cara. Se ha pintado el interior (oficinas, sala principal, puertas, pasillos, etc.) y el exterior del centro juvenil y se han colocado nuevos corchos para informar de las actividades organizadas. Además, la sala multimedia ha incorporado tres nuevos ordenadores que se pondrán en marcha con la programación de otoño.
Por otro lado, todos los y las jóvenes interesados/as en solicitar una sala de reunión o una sala de ensayo en el Gazteleku deberán presentar su solicitud entre el 2 y el 20 de septiembre.. ■

## Gazteleku > Local Juvenil

### ■ Udako jarduerak

Uztailaren bukaeratik eta abuztu osoan, herriko gazteek gogotik parte hartu dute Gaztelekuk antolatutako irteeretan, bai eta aisia eta entretenimendu jardueretan ere. Egutegia uztailaren 30ean eta 31n abiatu zen, txangoa egin baitzen Bertiz eta Zarautzera; hura Burlata, Atarrabia, Uharte eta Aranguren Ibarreko Udalek batera antolatutako ekimena izan zen. Abuztuaren 27an, bestalde, Acuopolis Costa Dourada-ra joan ziren, eta biharamunean, hilaren 28an, asteazkenean, 12 eta 16 urte artekoek Irotzera bizikletaz txangoa egin zuten.
Abuztuaren 13tik 29ra, gainera, asteartero eta ostegunero, Gaztelekuko monitoreek eta, joan den ekainean, denbora libreko aurre-monitore izateko ikastaroan aritutako hainbat gaztek 12 eta 13 urteko neska-mutilendako jarduerak antolatu dituzte.
Azkenik esan behar da 440 gaztek erabili dutela Udalak eta Gazteria Kontseiluak abian jarritako Jaibus zerbitzua. Aurten berritasunak izan dira: itzulera ordubete aurreratu da (7:00etan; aurreko urteetan, aldiz, 8:00etan) eta erabiltzaileen gutxienezko adina 17 urtera igo da.

### Actividades de verano

Desde finales de julio y durante todo el mes de agosto, los y las jóvenes de la localidad han podido participar en alguna de las salidas y actividades de ocio y entretenimiento que ha organizado el Gazteleku. El calendario comenzó los días 30 y 31 de julio con una excursión a Bertiz y Zarautz, incluida en la programación mancomunada de los Ayuntamientos de Burlada, Villava, Huarte y Valle de Aranguren. El 27 de agosto tuvo lugar la salida a Acuopolis Costa Dourada y al día siguiente, el miércoles 28, se realizó un paseo en bicicleta por Iroz, dirigido a jóvenes de 12 a 16 años.
Además, del 13 a 29 de agosto todos los martes y jueves de 11:00 a 13:00 monitores/as del Gazteleku y varios jóvenes que participaron en junio en el curso de premonitor de tiempo libre han organizado actividades para chavales de entre 12 y 13 años.
Por último, hay que señalar que 440 jóvenes han hecho uso del servicio de Jaibus que pone en marcha el Ayuntamiento y el Consejo de Juventud y que este año ha introducido novedades: la vuelta se ha adelantado una hora (7:00 frente a las 8:00 de otros años) y se ha aumentado la edad mínima, que ha pasado a 17 años. ■

### ■ Udazkeneko programazioa

Programazioa urriaren 17an hasiko da 12 eta 18 urte arteko gazteendako antzerki ikastaro baten bidez, bai gaztelaniaz (ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara), bai euskaraz (ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara). Gaztelaniazko taldeak maiatzaren 22an bukatuko du ikastaroa, eta euskarazkoak, berriz, maiatzaren 23an. Prezioa: 50 euro (Atarrabiako auzokideak) eta 120 euro (gainerakoak). Izen-ematea irailaren 2tik 20ra. Bigarren ikastaroa, denbora libreko monitorea (euskaraz eta gaztelaniaz) urriaren 26an hasi eta martxoaren amaieran bukatu da. Larunbatetan emanen da, 9:00etatik 14:00etara eta 380 euro balioko du. (Udalak 100 euro emanen ditu parte-hartzaile bakoitzeko, ikastaroa bukatzean). Izen-ematea irailaren 2tik 27ra.

### Programación de otoño

La programación arrancará el 17 de octubre con un curso de teatro para jóvenes de 12 a 18 años que se impartirá en castellano (jueves, de 18:00 a 20:00) y euskera (viernes, de 18:00 a 20:00). Terminará el 22 de mayo (grupo castellano) y 23 de mayo (grupo euskera). Precio: 50 euros (vecinos/as Villava) y 120 euros (resto). Inscripciones, del 2 al 20 de septiembre. El segundo curso, monitor de tiempo libre (euskera y castellano) comenzará el 26 de octubre y concluirá a finales de marzo. Se impartirá los sábados de 9:00 a 14:00 y costará 380 € (de ellos 100 € serán subvencionados por el Ayuntamiento al finalizar el curso). Inscripciones, del 2 al 27 de septiembre. ■

## Direktorioa > Directorio

**Bulego Nagusiak. Oficinas Generales**
Karrika Nagusia, 22 / Calle Mayor, 22
Tel: 948 13 66 80. www.villava.es
ayuntamiento@villava.es

**Herritarrentzako Harrera. Atención ciudadana** Tel: 012

**Udaltzaingoa. Policía Municipal**
Karrika Nagusia, 22 / Calle Mayor, 22
Tel: 948 13 63 90
Zerbitzua 24 orduz / Servicio 24 horas:
Tel: 608 973 030

**Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoa. Servicio Social de Base**
Karrika Nagusia, 22 / Calle Mayor, 22
Tel: 948 13 07 34 Faxa: 948 13 52 51

**Kultur Etxea. Casa de Cultura**
Karrika Nagusia, 38 / Calle Mayor, 38
cultura@villava.es

**"Amalur" Haur Eskola. Escuela Infantil "Amalur"**
Ezkaba kalea, 6 / Calle Ezcaba, 6 Tel: 948 14 28 23

**Udalaren Kirol Zerbitzua. Servicio Municipal de Deportes**
Martiket, z/g / Grupo Martiket, s/n
Tel: 948 12 49 99

**Euskara Zerbitzua. Servicio de Euskera**
Karrika Nagusia, 22 / Calle Mayor, 22
Tel: 948 13 66 80

## Bestelako zerbitzu publikoak > Otros servicios públicos

**Gazteleku. Centro Cívico**
Fruta-arbolen pasealekua, z/g / Camino de los frutales, s/n. Tel: 948 35 59 70

**Bake Epaitegia. Juzgado de Paz**
Karrika Nagusia, 22 / Calle Mayor, 22
Tel: 948 38 26 02

**Erretiratuen Etxea. Club de Jubilados**
Udaletxeko plaza, z/g / Plaza Consistorial
Tel: 948 12 78 38 / Taberna/Bar: 948 13 06 60
/Ile-apaindegia/Peluquería: 948 13 18 97

**Lorenzo Goicoa ikastetxea. Colegio Lorenzo Goicoa**
Fermín Tirapu kalea, z/g / Calle Fermín Tirapu, s/n
Tel: 948 38 24 90 Faxa: 948 38 24 91

**Atargi ikastetxea. Colegio Atargi**
Fermín Tirapu kalea, z/g / Calle Fermín Tirapu, s/n.
Tel: 948 13 66 70

**Udal aterpetxea. Albergue municipal**
Petri Atarrabiako, 17-19 Atzealdea / Pedro de Atarrabia 17-19 Trasera. Tel: 948 11 15 77

**Tratu txarren aurkako telefonoa:** 016
**Tel. contra el maltrato** 016

## Kolektiboak > Colectivos

### ■ Atarrabiako Herritarren Eskola

Herritarren Eskola herriko gizon eta emakume talde batek sustatu du, egungo jendartearen konplexutasunaren jakitun baitira, betiere gizartean, politikan eta ekonomian gertatzen ari diren gizarte-eraldakuntzen arrazoiak eta ondorioak sakon eta zorroztasunez aztertu nahiak bultzaturik.
Hona hemen Behin-behineko Batzordeko kideak: José Mari Ballesta (presidentea); Pablo Archel (idazkaria); eta Rubén Oneca, Maite Bengoa eta Rosario Aizpurúa (kideak).
Jarduerak antolatuko ditu, hala nola mintzaldiak, topaketak eta beste foroekiko trukaketak.
Denboraldi honetan, besteak beste, pertsona hauek arituko dira hizlari: José Ignacio Lacasta, Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna; Guillermo Múgica, Gogoa Foroaren Batzorde iraunkorreko kidea eta Javier Álvarez Dorronsoro, zientzia ekonomikoetako ikerlaria. Lehen hitzaldia, dena den, aurtengo Vianako Printzearen Kultura Sariak eginen du azaroaren 7an, ostegunean: Daniel Innerarityk, alegia.

### Escuela de Ciudadanía de Villava

La Escuela de Ciudadanía es un proyecto impulsado por un grupo de hombres y mujeres de la localidad, conscientes de la complejidad de la sociedad actual, y preocupados por analizar con rigor y profundidad las causas y los efectos de las transformaciones sociales en los ámbitos social, político y económico.
La Junta Provisional está constituida por José Mari Ballesta (presidente); Pablo Archel (secretario); y Rubén Oneca, Maite Bengoa y Rosario Aizpurúa (vocales).
Organizará actividades, tales como conferencias, encuentros e intercambio con otros foros.
Este curso tiene previsto contar con los conferenciantes José Ignacio Lacasta, catedrático de Filosofía del Derecho, Guillermo Múgica, vocal de la Junta permanente del Foro Gogoa o Javier Álvarez Dorronsoro, investigador en ciencias económicas. La primera correrá a cargo del reciente Premio Príncipe de Viana de la Cultura, Daniel Innerarity, el jueves 7 de noviembre. ■

### ■ Ikastaroak Erretiratuen Elkartean

Irailaren 19an irekiko da Erretiratuen Elkarteak antolatutako ikastaroetan izena emateko epea. Elkartean bertan eman behar da izena, astearte eta ostegunetan, bulego-orduetan. Hona zer eskaintzen den: esku-lanak, yoga, kantua, zura lantzea, mantentze-gimnasia eta teknologia berriak.
Aurten urrezko ezteiak ospatzen dituzten bazkideek, bestalde, Erretiratuen Elkartean eman dezakete izena San Andres eguneko ohiko omenaldirako.

### Cursos en el Club de Jubilados/as

El plazo para inscribirse en los cursos organizados por el Club de Jubilados/as se abre el 19 de septiembre. Se tramita en el propio Club, los martes y jueves en horario de oficina. La oferta incluye: manualidades, pintura, yoga, canto, talla de madera, gimnasia de mantenimiento y nuevas tecnologías.
Por otra parte, los socios y socias que celebren este año las Bodas de Oro, pueden apuntarse en el Club de Jubilados/as para el homenaje anual en la fiesta de San Andrés. ■



### ■ Gure azken agurra Satrus-i

Maisua, mendizalea, argazkilaria, kronikaria, dinamizatzailea, Atarrabiako hamaika kirol eta kultur ekimenen bultzatzailea… José Antonio Pérez Satrústegui auzokidea iragan abuztuaren 3an zendu zen, 90 urtetan.

### Adiós a "Satrús"

Maestro, montañero, fotógrafo, cronista, dinamizador, impulsor de mil proyectos deportivos y culturales en Villava... El vecino José Antonio Pérez Satrústegui falleció el pasado 3 de agosto a los 90 años de edad.

### ■ Atarrabia Gosearen Kontra elkartasunezko jardunaldia, irailaren 28an.

Bosgarren urtez jarraian, Atarrabia Gosearen Kontra ekimenak atarrabiar guztiei dei egin die, irailaren 28an egitekoa den sentsibilizazio eta informazio egunean parte hartzeko. Kros Solidarioak, aurten, dirua bilduko du hala Atarrabiako eskola-jantokientzat nola Hondurasko Santa Teresa ikastetxekoentzat. Hiru lasterketa eginen dira haurrentzat, eta bi, helduentzat (ibilbide laburra eta luzea).

### La jornada solidaria de Atarrabia Contra el Hambre, el 28 de septiembre

Por quinto año consecutivo, Atarrabia Contra el Hambre convoca a la ciudadanía de Villava a participar en la jornada de sensibilización e información que se celebrará el 28 de septiembre. El Kross Solidario recaudará en esta edición fondos tanto para los comedores escolares de Villava/Atarrabia, como para los del colegio Santa Teresa de Honduras. Se celebrarán tres carreras infantiles y dos adultas (circuito corto y largo). ■

### ■ Beti-Onak futbol atalak laguntza eskatu du, jendea zelaian ez sartzeko

Beti-Onak Kirol Klubeko futbol atalak dei egin die bere jokalariei, entrenatzaileei eta zaleei, zelaian jenderik sar ez dadin, ez partidetan, ezta entrenamenduetan ere. Kontua da araua bete egin behar dela eta, horrela, ez da zehapenik izanen; tartean, diru-zehapenak ere badaude. Klubak ordaindu beharko lituzke. Horrekin batera, jendea sartzen ez bada, jokozelaia ez da hondatuko.

### El Beti- Onak seccion fútbol pide colaboración para evitar las invasiones del campo

El C.d. Beti-Onak sección futbol hace un llamamiento a sus jugadores, entrenadores y aficionados para que entre todos se consiga evitar en esta nueva campaña la entrada en el campo de personas tanto durante los partidos como en los entrenamientos. Se trata de cumplir la norma y evitar las sanciones, también económicas, que de otro modo recaerían en el club. Además, se evitará el deterioro del terreno de juego. ■



### ■ Miguel Indurain semea, nafar txapeldun juniorra

Miguel Indurain semeak Nafarroako Txapelketa irabazi zuen ekainaren 15ean, erlojupeko proban, junior kategorian. Aurretik, maiatzaren 25ean eta 26an, beste garaipen bat lortu zuen errepideko txapelketetan.

### Miguel Indurain hijo, campeón navarro junior

Miguel Indurain hijo se impuso el sábado 15 de junio en el Campeonato de Navarra contrarreloj en categoría junior. Este triunfo se suma al obtenido los días 25 y 26 de mayo en los campeonatos en ruta. ■

### ■ Irati Elkartea desegin da

23 urtez, Atarrabiako emakumeak sustatzen, prestatzen eta integratzen jardun ondoren, Irati Elkarteak agur esan digu. Atarrabiako emakume aunitzek parte hartu dute urte sail luze horretan antolatutako ekitaldi ugarietan (ikastaroak, mintzaldiak, kultur bisitak, antzerki-saioak, otorduak, kafe-tertuliak…). Irati Elkartea Iruñerriko emakume elkarte aitzindarietako bat izan da emakumeak balioetan prestatzen, bai eta emakumeen artean errespetuzko, koherentziazko, konpromisozko eta elkartasunezko jarrerak lantzen ere. Beste gauza askoren artean, Atarrabiak Tripotxa Lehiaketa Dastatzea festen egitarauan sartu izana zor die. Hemendik aurrera, Nafarroako Tripotxa Kofradia arduratuko da ekitaldi esanguratsu hori antolatzeaz.

Udalak eta Udalaren Kultura eta Berdintasun Zerbitzuek beren esker ona agertu nahi diete Irati Elkarteko emakume zuzendariei, emakumeen aldeko lanari eskainitako denbora, lana eta ahaleginengatik. Izan ere, lan handia egin dute berdintasunaren arloa okerrago zegoen garaia ezagutu zuen emakume-belaunaldi baten alde. Eskerrik asko!

### Se disuelve la Asociación Irati

La Asociación Irati, tras 23 años de trabajo en pro de la promoción, formación e integración de la población femenina de Villava, nos dice adiós. Muchas han sido las mujeres de Villava que han pasado por las múltiples actividades que han realizado (cursos, conferencias, visitas culturales, teatros, comidas, cafés-tertulia…). La Asociación Irati ha sido una de las asociaciones de mujeres de la comarca de Pamplona pioneras en formar a las mujeres en valores y actitudes de respeto, coherencia, compromiso y solidaridad. Villava les debe, entre otras muchas cosas, la incorporación al programa de Fiestas del Concurso-Degustación de relleno. A partir de este año la organización de este significativo evento pasa a manos de la Cofradía del Relleno de Navarra.

El Ayuntamiento y los Servicios municipales de Cultura e Igualdad agradecen al grupo de mujeres dirigentes de la Asociación Irati el tiempo, trabajo y desvelos que han dedicado en pro de una generación de mujeres que conoció unos tiempos menos igualitarios. Eskerrik asko! ■

## Atarrabiako Eguna









**Rosario Baigorri akordeoilaria, eta akordeoilari-maisua, Atarrabiako Egunean omendu zuten. / El acordeonista, y maestro de acordeonistas, Rosario Baigorri, fue homenajeado en el Atarrabiako Eguna.**

## ERAKUSKETAK
**Kultur Etxea**
**Ordutegia:** 18:00-21:00

**Argazkia eta pintura**
ART ARRABIA
**Egileak:** herriko pintoreak eta argazkilariak
**Noiz:** irailaren 14tik urriaren 4ra

**Pintura**
"La paradoja del presente"
**Egilea:** Belén Arévalo
**Noiz:** urriaren 15etik azaroaren 8ra

### Irailak 11, asteazkena
Bideo foruma
**Izenburua:** "Emakume bidaiariak. Emakumezkoen migrazio-prozesua". Emakume Etorkinen Elkarte Mugimenduaren baitan
**Non:** Kultur Etxea
**Ordua:** 19:00. **Sarrera:** doan




### Irailak 14, larunbata
GAU ZURIA
**Non:** Kultur Etxea. **Sarrera:** doan
**21:30** Karrikadantza. Erraldoi konpartsa, gaiteroak, dultzaineroak eta txistulariak. Ibilbidea: Kultur Etxea, karrika Nagusia, Udaletxe plaza eta karrika Nagusia
**22:30** Literatur kalejira. "El gran Blasfemo" León Feliperena, El Bardo eta Gas Taldearen eskutik. Ibilbidea: Kultur Etxea, Atarrabia Kalea eta karrika Nagusia
**23:00** ART ARRABIA erakusketaren inaugurazioa, erakusketa gela
**23:30** San Andrés Abesbatzaren kontzertua
**24:00** Tarte poetikoa El Bardorekin
**24:05** Zorongo-ren kontzertua
**24:30** Tripotxa-pintxoa, Nafarroako Tripotxa Kofradiak eskainia
**24:50** Antzerkia. "El marido prudente". Zarrapastra
**01:00** Tarte poetikoa El Bardorekin
**01:05** Atarrabia Abesbatzaren kontzertua
**01:30** Tarte poetikoa El Bardorekin
**01:35** Mikelats-en jaialdia
**02:00** Bukaerako kalejira. "El gran Blasfemo" León Feliperena, El Bardo eta Gas Taldearen eskutik. Ibilbidea: Kultur Etxea eta karrika Nagusia

### Irailak 20, ostirala
Antzerkia
Nafarroako Antzerki Amateurraren II. Erakustaldia
"No es tan fácil"
**Taldea:** Ligli Trouppe
**Non:** Kultur Etxeko antzokia
**Ordua:** 20:00 **Sarrera:** 3 €

### Irailak 22, igandea
Antzerkia
Nafarroako Antzerki Amateurraren II. Erakustaldia
"Dinero negro"
**Taldea:** Almadía Teatro
**Non:** Kultur Etxeko antzokia
**Ordua:** 20:00 **Sarrera:** 3 €



### Irailak 27, ostirala
Antzerkia
Nafarroako Antzerki Amateurraren II. Erakustaldia
"Geriatraco casi perfecto"
**Taldea:** Karretabidea
**Non:** Kultur Etxeko antzokia
**Ordua:** 20:00 **Sarrera:** 3 €

### Irailak 29, igandea
Teatro
Antzerkia
Nafarroako Antzerki Amateurraren II. Erakustaldia
**Taldea:** Aquí hay madera
**Non:** Kultur Etxeko antzokia
**Ordua:** 20:00 **Sarrera:** 3 €

### Irailak 28, larunbata
V Jardunaldia: Atarrabia Gosearen Kontra
Kros Solidarioa eta beste jarduera batzuk
www.atarrabiacontraelhambre.org

### Urriak 20, igandea
Antzerkia
"El nombre de la Rosa"
**Taldeak:** Ados Teatroa, Al Revés Producciones, Tres Tristes Tigres eta La Nave Producciones
**Non:** Kultur Etxeko antzokia
**Ordua:** 20:00 **Sarrera:** 10 €

### XVIII. "Besta Jira" Argazki Lehiaketa
**Epea:** urriaren 14tik azaroaren 14ra
**Modalitateak:** zuri-beltzean, koloretan eta herriko gaia
**Gutxienezko adina:** 16 urte. **Sariak:** modalitate bakoitzean, 200 euroko lehen sari bat eta 100 euroko bigarren bat
Oinarriak eskura: www.villava.es

## EXPOSICIONES
**Casa de Cultura**
**Horario:** 18:00-21:00

**Fotografía y pintura**
ART ARRABIA
**Autores:** pintores y fotógrafos locales
**Fechas:** Del 14 de septiembre al 4 de octubre

**Pintura**
"La paradoja del presente"
**Autora:** Belén Arévalo
**Fechas:** del 15 de octubre al 8 de noviembre

### 11 de septiembre, miércoles
Video forum
**Título:** "Mujeres viajeras. El proceso migratorio femenino". Dentro del programa Movimiento Asociativo de Mujeres Inmigrantes
**Lugar:** Casa de Cultura
**Hora:** 19:00. **Entrada:** libre




### Sábado 14 de septiembre
NOCHE BLANCA
**Lugar:** Casa de Cultura. **Entrada:** libre
**21:30** Pasacalles. Comparsa de Gigantes, gaiteros, dulzaineros y txistularis Recorrido: Casa de Cultura, calle Mayor, Plaza Consistorial, calle Atarrabia y calle Mayor
**22:30** Pasacalles literario "El gran Blasfemo" de León Felipe, a cargo de El Bardo y Gas Taldea. Recorrido: Casa de Cultura y calle Mayor
**23:00** Inauguración de la exposición ART ARRABIA, sala exposiciones
**23:30** Concierto de la Coral San Andrés
**24:00** Interludio poético con El Bardo.
**24:05** Concierto de Zorongo
**24:30** Pintxo de relleno ofrecido por la Cofradía del Relleno de Navarra, parque Ribed/Casa de Cultura
**24:50** Teatro. "El marido prudente". Zarrapastra
**01:00** Interludio poético con El Bardo.
**01:05** Concierto de Atarrabia Abesbatza
**01:30** Interludio poético con El Bardo.
**01:35** Festival de Mikelats
**02:00** Pasacalles final "El gran Blasfemo" de León Felipe, a cargo de El Bardo y Gas Taldea. Recorrido: Casa de Cultura y calle Mayor.

### Viernes 20 de septiembre
Teatro
II Muestra navarra de Teatro Amateur
"No es tan fácil"
**Compañía:** Ligli Trouppe
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00. **Entrada:** 3 €

### Domingo 22 de septiembre
Teatro
II Muestra navarra de Teatro Amateur
"Dinero Negro"
**Compañía:** Almadía Teatro
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00. **Entrada:** 3 €



### Viernes 27 de septiembre
Teatro
II Muestra navarra de Teatro Amateur
"Geriatraco casi perfecto"
**Compañía:** Karretabidea
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00. **Entrada:** 3 €

### Domingo 29 de septiembre
Teatro
II Muestra navarra de Teatro Amateur
"Mi mujer es el fontanero"
**Compañía:** Aquí hay madera
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00. **Entrada:** 3 €

### Sábado 28 de septiembre
V Jornada Atarrabia Contra el Hambre
Kross Solidario y otras actividades
www.atarrabiacontraelhambre.org

### Domingo, 20 de octubre
Teatro
"El nombre de la Rosa"
**Compañías:** Ados Teatroa, Al Revés Producciones, Tres Tristes Tigres y La Nave Producciones
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00. **Entrada:** 10 €

### XVIII Certamen de Fotografía "Besta Jira"
**Plazo:** del 14 de octubre al 14 de noviembre
**Modalidades:** blanco y negro, color y tema local
**Edad mínima:** 16 años. **Premios:** en cada modalidad, un primer premio de 200 € y un segundo de 100 €
Bases disponibles en www.villava.es


Carnicería IRIGUIBEL
*El quehacer de los años, nuestra primerísima calidad y nuestros productos caseros... Nos marcan la diferencia*
**VILLAVA:** C/ Las Eras, 9. Tel. 948 149 789
**HUARTE:** C/ Portal, 1. Tel. 948 330 213
C/ Pérez Goyena, 8-10. Tel. 948 330 232
**HORARIO ININTERRUMPIDO**
Lunes a Viernes de 9:00 a 20:30
Sábado de 9:00 a 14:00

Osadlan
Servicios Asistenciales a Domicilio para personas dependientes
C/ Río Ega, 14 bajo Of. 01
31005 PAMPLONA
Tlfno. 634 575 040
info@osadlan.com
WWW.OSADLAN.COM